

EXPRESS TXEKEOA

COVID-19 Ekonomia Behatokia

Inkesta egindako enpresen %40ak martxoaren 27rako euren aktibitatea geratuta zuten

Donostia - 2020ko apirilaren 3a – Coronavirusa izaten ari den inpaktu azkarra dela eta, martxoaren erdialdetik, Gipuzkoako Bazkundera ondorioak monitorizatzen joan da Gipuzkoako atonomo eta konpainien artean, bai antolakuntza arlokoan eta baita enpresa mailan ere. Inkesten emaitzak Administrazio Publikoari eta erakundeei helarazten joan zaie, eurek ahalik eta informazio gehiago izan dezaten beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko.

Antolakuntza neurriak

Enpresek hartu zituzten lehen antolakuntza neurriak bidaiak bertan behera uztea izan zen (enpresen %89ak), honekin batera bilerak baliogabetzea eta ekitaldi ezberdinetara ez joatea (enpresen %80ak). Ondorioz bideokonferentziak erabilera %66 handitu da inkestan parte hartu duten enpresen artean.

Enpresen %68ak ordutegi malgutasunaren eta lanaldi mailakatuen inguruko neurriak hartu dituzte eta %62ak aparteko kontzilioak neurriak ezarri dituzte euren langileentzat. Enpresen kopuru berak ere, telelanaren orduak ezarri edo gehitu ditu, %61 hain zuzen.

Enpresen erdiak baino gehiagok, %55ak zehatz mehatz, segurtasun ekipamenduak jartzera behartuta egon dira (buzoak, maskarilak, eskularruak,...) horrek euren aktibitatea baldintzatu zezakeelarik.

Aldi baterako kontratazioei dagokionez, enpresen %42ak gutxitu egin ditu, %28ak inkesta egindako garaian amaitzen zirenak berri ez dituen bitartean. Bestalde batetik, coronavirusak eragindako bajak, bai kutsaduragatik edo berrogeialdiari eutsi behar izateagatik enpresen %31ari iritsi zaie. Enpresen %49ak Enplegu Erregulazio Espedienteera jo behar izan dute ezinbestez.

Azkenik, kontsulta egindako enpresen %28ak soldatak emateari utzi dute merkatuaren erabateko geldialdiagatik.

Enpresarial ondorioak

Enpresarial ondorioak agerikoak dira dagoeneko Gipuzkoako enpresen artean. Inkestari erantzun dioten konpainien %81ak euren sektorean merkatuaren geldialdi bat dagoela baieztatzen dute eta enpresen %70ei eskaerak balioagatu dizkete. %81ak bere produzioa gutxitu du.

Bestalde, enpresen %67a hornitzeko orduan zailtasunak izaten ari da eta %47a hornikuntza falta izaten ari da. Enpresen %65ak berriz, logistika arazoak dituztela ziurtatu dute.

Enpresen %7ak bakarrik dio euren produkzioa handitu dutela egoera honetan.

Erabateko salmentak eta kanpo salmentak

Salmentei dagokionez, enpresen %65ak jaitziera nabarmenak izan dituzte, %20 baino gehiago, %13ak salmentak igo edo eta eutsi egin dituzten bitartean.

Kanpoko salmentei dagokionez, nazioarteko aktibitatea duten enpresen %53ak euren esportazioak gutxitu dituztela diote, %20ko hain zuzen, %22ak salmentak igo edo eta eutsi egin dituzten bitartean.


Hornikuntza eta stocka


Enpresen %57ak hornikuntza arazoak dituztela baieztatu dute. Horietako %31ak barruko hornikuntza azaroak dira eta %26a kanpokoak.

Konpainien %23ak stock haustura bat izango dutela baieztatzen dute, %45ak arazo hori epe motzean ez duela izango uste duen bitartean.

Azkenik, enpresen %11ak euren kostuak %20an gehitu direla ikusi dute, %59ak kostetan igoyerarik ikusi ez duten bitartean.

Inkesta egindako 619 enpresen aktibitate sektoreak eta langile kopurua





Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347